

ITZULTZAILE-INTERPRETEEN LANA GERTUTIK

- **Jakintza adarra:** Arteak eta Giza Zientziak
- **Campus:** Araba
- **Ikastegi antolatzailea:** Letren Fakultatea
- **Gradua/k:**
Itzulpengintza eta Interpretazioa
- **Garapen-lekua (helbidea):** Unibertsitateko Ibilbidea, 5. Vitoria-Gasteiz

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Harrera eta Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketen azalpena

Bisita gidatua Fakultate eta Campusaren instalazioetara

Itzulpengintzari buruzko praktika bat laborategietan egin (itzulpen memorien erabilera, itzultzeko tresnak), eta Interpretazioari buruzko praktika bat egin (interpretazio-kabinen erabilera eta itzulpen modalitateak (aldi-berekoa, esaten ostekoa).

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketen eduki orokorra.
- Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketen irtenbide profesionalak.
- Itzulpengintzaren praktika Fakultatean.
- Interpretazioaren praktika Fakultatean.
- Praktikari dagokion atala garatzeko, ikasleak Itzulpengintza eta Interpretazio laborategietara eramango ditugu. Azalpen teorikoak Gradu Aretoan edo Areto Nagusian emango dira.
- Bisita gidatua laborategietara eta Arabako Campuseko azpiegiturretara.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

1. Azalpen teorikoak

Ikasketa hauek hautatzen dituztenek, 4 urtetan zehar zer-nolako edukiak landuko dituzten azalduko zaie (ikasketa programaren azalpena, lantzen diren irakasgaien zergatia, etab). Bestalde, itzultzaile eta interpreteen irteera profesionalen gaineko azalpenak ere emango zaizkie. Horretarako, fakultateko egungo ikasle bat edo lan-egoera aktiboan dagoen ikasle ohi bat gonbidatu ahal izango da, ikasleei beren esperientzia azaltzeko.

2. Laborategiko praktikak

Itzulpengintza: itzulpen laborategiak eskaintzen dituen abantailak erakutsiko zaizkie (itzulpen-memorien erabilera, filmak itzultzeko tresnak, etab.) Azpтитuluak egiteko tresnak. Graduako irakasle bat arduratuko da aurkezpenaz.

Interpretazioa: interpretazio-kabina batean nola lan egiten den erakutsiko zaie. Horretarako, fakultateko ikasleekin kabinetan sartu, eta ariketa praktikoak egin ahalko dituzte. Graduako irakasle bat arduratuko da aurkezpenaz.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2026-01-15	Euskara	Arratsaldez	16:00-18:30	25
2026-01-15	Gaztelania	Arratsaldez	16:00-18:30	25